

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko maiatzaren 1etik 7rako astea.**

2021/05/08

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 23/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. **2603 xedapena - 12 or.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2021/05/06

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko apirilaren 15ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Zerbitzuguneen estatuko hitzarmen kolektiboaren 2021. urterako ordainsarien berrikusketa eta ordainsarien taulak. **7526 xedapena - 3 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/04

- **DEFENTSA MINISTERIOA. – Kutsatutako lurzoruak.** - DEF/427/2021 Agindua, apirilaren 27koa, Instalazio Militarretako Kutsatutako Lurzoruen Prebentzio eta Berreskuratze Plana onesten duena. **7311 xedapena - 2 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. – Kontabilitate publikoa.** – Akats-zuzenketa, honako agindu honena: HAC/360/2021 Agindua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen diren Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1996ko otsailaren 1eko Aginduak, zeinaren bidez onesten diren Estatuko Administrazio Orokorrak erabili beharreko kontabilitate-dokumentuak eta Estatuaren gastuaren exekuzioan jarraitu beharreko kontabilitate-eragiketaren Instrukzioa; EHA/2043/2010 Agindua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez arautzen den Estatuko sektore publikoko enpresa eta fundazio erakundeek Kontu Auzitegiari eman behar dizkioten urteko kontuak eta gainerako informazioa eta Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiari bidali beharreko urteko eta hiruhileko informazioa bidaltzeko prozedura; EHA/2045/2011 Agindua, uztailaren 14koa Estatuko Administrazio Instituzionalerako Kontabilitate Instrukzioa onesten duena, eta EHA/3067/2011

Agindua, azaroaren 8koa, Estatuko Administrazio Orokorrerako Kontabilitate Instrukzioa onesten duena. 7312 xedapena - 2 or.

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Atzerritarrak. -** Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, Estaldura Zaileko Okupazioen Katalogoa argitaratzen duena, 2021eko bigarren hiruhilekorako. 7344 xedapena - 2 or.

2021/05/05

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak. -** 8/2021 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen diren osasunaren, gizartearen eta jurisdikzioaren alorretan, alarma-egoeraren indarraldia amaitzean aplikatzeko, zeina urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarri zen, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. 7351 xedapena - 25 or.

2021/05/07

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Salbuespenezko neurriak. -** PCM/439/2021 Agindua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko maiatzaren 4ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, 2021eko otsailaren 2ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia luzatzen duena; horren bidez, ezohiko neurriak ezartzen dira COVID-19aren hedatzea eta kutsatzea eragozteko Brasilgo Errepublika Federatiboaren eta Hego Afrikako Errepublikaren eta Espainiako aireportuen arteko hegaldiak mugatuta. 7558 xedapena - 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/05/05

- **XEDAPEN OROKORRAK. - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. -** 2/2021 FORU ARAUA, martxoaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. 2523 xedapena - 39 or.

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** - 22/2021 EBAZPENA, apirilaren 19koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituen erabakia. **2543 xedapena - 25 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/07

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 847/2021 FORU AGINDUA, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez eredu hauek onesten baitira: plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuei buruzko informazioa aitortzeko 234 eredua; mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarri jakin batzuen eguneratzeari buruzko informazioa aitortzeko 235 eredua, eta plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen erabilerari buruzko informazioa aitortzeko 236 eredua. **I-378 xedapena - 19 or.**
- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 846/2021 FORU AGINDUA, maiatzaren 5koa. Honen bidez, onetsi egiten da aitortu behar diren plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoetan esku hartu eta parte hartzen dutenen arteko komunikazioen edukia. **I-379 xedapena - 5 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO